



TXINTXARRI

EAEn, EAJ; udalerrian, EH Bildu

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan lasarteoritarren %58,72k bozkatu du / 2-3

Gazteentzako espazioak ahotan

Saio berri bat aurrera eraman du Borobilean elkarteak. 'Lasarte-Oriak, gaztetxea?' lelopean, espazioen gaia jorratu dute / 9

Berdintasunean eta aniztasunarekiko errespetuan oinarritutako patioak, ikastetxeetan / 4

Etkez etxeko laguntza zerbitzuko langileek eskatutakoa onartu du udal korporazioak, aho batez / 5

Partaidetzaren ikuspegitik hausnartu dute euskalgintzaz, Oreki fundazioaren mahai inguruan / 6

GurasoLekun parte hartu dutenek ikasturtea ixteko festa ospatuko dute maiatzaren 14an / 7

Buruntzaldea IKTko kide Nahia Zudairek bi domina irabazi ditu igeriketa egokituko Europakoan / 10

Junior mailako Euskadiko boleibol txapelketako finalerdietatik kanpo geratu da Ostadar / 12

MAIATZAK 4
larunbata

10:00etan
erdi maila

11:30ean
goi maila eta
espezializazioa

erdi maila

maiatzak 7 17:00etan

asteartea

USURBILGO LANBIDE ESKOLAko
ATEAK ZABALIK

goi maila eta
espezializazioa

maiatzak 8 17:00etan

asteazkena



IZENA
EMAN

tel. 943 36 46 00

WWW.LHUSURBIL.EUS



Lasarteoriatar bat, bere botoa hautetsontzian sartzen. TXINTXARRI

EAJk irabazi ditu bozak EAEn eta udalerrian EH Bildu izan da bozkatuena

Botoei erreparatuta, jeltzaleek irabazi dituzte Eusko Jaurlaritzarako hauteskundeak bozen %35,22 eskuratuta, nahiz eta eserlekuetan EH Bildurekin 27ra berdindu duen. Edonola, ezustekorik ez bada, EAJko hautagai Imanol Pradales izango da Eusko Jaurlaritzako burua

Txintxarri

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan 14.770 lasarteoriatarrek izan zuten hilaren 21ean botoa emateko eskubidea, baina haietako %58,72k utzi zuen berea hautetsontzietan, 2020an baino zortzi puntu gehiago (%50,03). Herrikoak kontatuta, EH Bildu izan zen alderdi bozkatuena, 2.772 (%32,37) lortu zituen. Jarraian, postuak trukatu zituzten PSE-EEK eta EAJk, sozialistek aurre hartuta; eta biek boto paper kopuruan gora egin bazuten ere, 2.183 (1.821) eta 2.136 (1.904), ehunekoa, berriz, behera egin zuten, %25,49 (%25,71) eta %24,94 (%26,88). Haien ondotik, PP (%7,23); 619 boz batu zituen, 183 gehituta. Sumar Mugimendua bosgarren kokatu zen aurkeztu zen lehen galdeketa: 331 herritarren babesa jaso du, %3,87. Podemos-Ahal dugu-Alianza

Verde eta Voxen artean boto bakarreko aldea dago, 205 boza jaso zituen ezkerreko koalizioak (%2,39), 204 eskuin muturreko alderdiak (%2,38), duela lau urte baino 72 gehiago. Horiez gain, beste alderdi txikiago batzuen alde ere egin zuten hautesleek (%1,33).

Gaur (hilak 26) zenbatuko dituzte atzerrian bizi eta bozkatze-ko eskubidea dutenek emandako botoak. Gipuzkoan 1.360 botoko aldea dago azken eserlekuan, PSE-EE eta EH Bildu artean. Zaila badirudi ere, koalizio aberzalearen esku geratuko balitz,

BOTOA EMATERA DEITUTA ZEUDEN 14.770 HERRITARRETIK %58,72K PARTE HARTU DUTE BOZETAN

Susi Sanz herritarra legebiltzar-kide izango da.

Duela lau urte COVID-19aren pandemiak baldintzatu zuen parte hartzea, 2016ko hauteskundeek izandakoarekin alderatuta, hamar puntu behera egin zuen herrian. Aurtengoetan, berriz, orduko %60,21etik gertu gelditu da. Lasaitasuna nabaritu zen erdialdeko hauteslekuetan. Ilara laburrak eta minutu gutxiko itxaronaldia egokitu zitzaizkien, adibidez, udaletxean edo Manuel Lekuona Kultur Etxeko barrutietan botoa eman zutenei.

Botoak, hauteslekuka

Lasarte-Oriako Udalarri hauteslekuetako datuak eskatu dizkio TXINTXARRI-k. EH Bildu izan da lehen indarra zortzi barrutietatik bostetan. Beste hiruetan, berriz, PSE-EE edota EAJ-PNVk bildu dituzte boto gehien.

Sasoeta

Alderdia	Botoak	%
EH Bildu	775	%32,6
PSE-EE	611	%25,7
EAJ-PNV	569	%24
PP	164	%6,9
Sumar	86	%3,6
Vox	63	%2,6
E. Podemos	55	%2,3
PACMA	15	%0,6
EB-AZ	7	%0,3
IZAN	4	%0,2

ITURRIA: L-O UDALA / EUSKO JAURLARITZA

Kultur etxea

Alderdia	Botoak	%
EH Bildu	455	%34,6
EAJ-PNV	333	%25,3
PSE-EE	312	%23,7
PP	100	%7,6
Sumar	43	%3,3
E. Podemos	40	%3
Vox	12	%0,9
PACMA	4	%0,3
IZAN	1	%0,07
EB-AZ	1	%0,07

ITURRIA: L-O UDALA / EUSKO JAURLARITZA

Udaletxea

Alderdia	Botoak	%
EH Bildu	321	%39,3
EAJ-PNV	205	%25,1
PSE-EE	154	%18,8
PP	36	%4,4
Sumar	35	%4,3
E. Podemos	29	%3,5
Vox	15	%1,8
EB-AZ	7	%0,9
PACMA	6	%0,7
IZAN	-	-

ITURRIA: L-O UDALA / EUSKO JAURLARITZA

Zumaburu esk.

Alderdia	Botoak	%
PSE-EE	360	%37,3
EAJ-PNV	211	%21,8
EH Bildu	199	%20,6
PP	109	%11,3
Sumar	39	%4
Vox	27	%2,8
E. Podemos	11	%1,1
PACMA	4	%0,4
PUM+J	1	%0,1
EB-AZ	1	%0,1

ITURRIA: L-O UDALA / EUSKO JAURLARITZA

Lib. zaharra

Alderdia	Botoak	%
EH Bildu	435	%39,3
EAJ-PNV	266	%24
PSE-EE	230	%20,8
PP	58	%5,2
Sumar	41	%3,7
Vox	28	%2,5
E. Podemos	21	%1,9
PACMA	9	%0,8
EB-AZ	6	%0,5
IZAN	5	%0,4

ITURRIA: L-O UDALA / EUSKO JAURLARITZA

Udal pabilioia

Alderdia	Botoak	%
EAJ-PNV	157	%29,2
EH Bildu	151	%28,1
PSE-EE	123	%22,9
PP	58	%10,8
Sumar	31	%5,8
Vox	28	%5,2
E. Podemos	21	%3,9
PACMA	7	%1,3
IZAN	3	%0,6
EB-AZ	2	%0,4

ITURRIA: L-O UDALA / EUSKO JAURLARITZA

Basaundi

Alderdia	Botoak	%
EH Bildu	253	%30,7
EAJ-PNV	211	%25,6
PSE-EE	198	%24
PP	65	%7,9
Sumar	30	%3,6
Vox	25	%3
E. Podemos	24	%2,9
PACMA	7	%0,8
EB-AZ	2	%0,2
PUM+J	1	%0,1

ITURRIA: L-O UDALA / EUSKO JAURLARITZA

Garaikoetxea


Alderdia	Botoak	%
PSE-EE	195	%28
EAJ-PNV	184	%26,5
EH Bildu	183	%26,3
PP	64	%9,2
Sumar	26	%3,7
Vox	18	%2,6
E. Podemos	12	%1,7
PACMA	2	%0,3
IZAN	2	%0,3
EB-AZ	1	%0,1

ITURRIA: L-O UDALA / EUSKO JAURLARITZA




APIRILAK 21


EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2024



Duela lau urte bezala, EH Bildu izan da alderdi bozkatuena herrian. 2.772 boto jaso ditu, 2020an baino 757 gehiago. TXINTXARRI



EAJk eta EH Bilduk 27na eserleku dituzte, PSE-EEK hamabi, PPK, zazpi eta Sumarrek zein Voxek bana. TXINTXARRI



EH Bilduk 11 legebiltzarkide ditu Gipuzkoan eta 12.a lor dezake. TXINTXARRI

MAITE

ESTETIKA ARETOA

Merezi duelako, oparitu kapritxo bat amaxori!

Opari txartela prestatuko dizugu:

- Manikura edota pedikura
- Makillajea • Solariuma
- Aurpegi edota gorputz tratamenduak
- Mota ezberdinetako depilazioak
- Betileen tindatzea eta lifting-a...

Ordu-tegi malgua daukagu
Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria
Tel. 943-37 08 45



Azhorteko Erromeria

2024ko maiatzak 3 (Santikurutz eguna)

11:00: Meza Azhorteko ermitan.
12:30: Bertsolariak eta trikitilariak.
BERTSOLARIAK: ANJEL LARRAÑAGA ETA ARATZ IGARTZABAL
TRIKITILARIAK: ANSORREGI ETA LARRAÑAGA

 **Autobus zerbitzua doan**
09:30-14:00: Pintore kaletik (Urnietan) Azhortera joan etorriak egingo ditu (azken igoera 12:00etan).

2024ko maiatzak 5

10:00: Tabernaren irekiera
11:00: Meza Azhorteko ermitan (Alboka Abesbatzak abestuko du)
12:00etatik aurrera: Herri-kirolak.
Trikitilariak giro-tutuko dute erromeria

Indarrak berrreskuratzeke haragi egosia, txorizoa, odolkoa eta edaria tabernan!



Erabilgarri daude bi patio inklusiboak

Berdintasunean eta aniztasunarekiko errespetuan oinarritutako kalitatezko harreman eta esperientziak ikasi eta eraikitzeke asmoz, patio inklusiboak eraiki ditu udalak Landaberri Garaikoetxean eta Sasoeta Zumaburuan; erabilgarri daude dagoeneko

Txintxarri

Landaberri Garaikoetxea eta Sasoeta Zumaburu ikastetxeetako haurrak jolas eremu berriez gozatzeko ari dira, ikastetxeetan; patio inklusibo bana eraiki die udalak. Horien helburua da ikastetxeetako haur guztiek beren intereseko jolas jarduerak aurrera eraman ahal izatea, hezkidetzak ikuspegi inklusibo batetik jolasteko espazioak eta uneak sortuz; hala azpimarratu du Zerbitzueta zinegotzi David Mateosek. Gaineratu du egungo eskola patioen egitura eta diseinua ez direla bilakaera pedagogiko horren eskutik joan, kirol jakin batzuk egiteko asfaltozko gune bakar bat eskaintzera baizik. Egoera horren ondorioz, erabilera ez dela bidezkoa ohartarazi du, rolak, botere harremanak eta jarrerak sortzen dituelako, genero kulturen definizioa eta mutilen eta nesken arteko desberdintasunak indartzen dituztenak, eta, aldi berean, ikasle inaktiboak bazter uzten ditu. Horren ondorioz, erabilera hori ez dela bidezkoa ohartarazi du, rolak, botere harremanak eta jarrerak sortzen dituelako, genero kulturen definizioa eta mutilen eta nesken arteko desberdintasunak

indartuz, eta, aldi berean, ikasle inaktiboak bazter utziz.

Lan horiek suposatzen duten gastuaren berri ere eman du udal ordezkariak. Sasoeta ikastetxeetako patioak 84.458,10 euroko kostua izan du guztira, eta Garaikoetxeak, berriz, 83.023,45 eurokoa. Orota, beraz, 167.481,55 euroko (BEZa barne) ordaindu ditu udalak. Dena den, Eusko Jaurlaritzaren esparru planari esker, diru kopuru horren %90 berreskuratzen ahal izango du Lasarte-Oriako Udalak.

Lorpen eta emaitzak

Patio inklusibo horiei esker, eskuratuko diren lorpenen berri ere eman du udalak. Osasuna eta ingurumenari dagokionean, naturalizatuagoak diren espazioak, hala nola, babes klimatikoak, berdeagoak, itzaldunak, naturarekiko harremana. Inklusibitatearen arloari erreparatu, jarduera ludiko, sortzaile eta jolas libre eta partekaturako erronkak dituzten espazioak, ikasle guztiek parte hartzeko aukera izan dezaten. Berdintasunari dagokionez, berdintasuneko harremanak sustatzen dituzten espazioak, jolas aukerak dibertsifikatuz eta gatazkak modu positiboan kudeatuz, haurrak jolasean zaindu eta dibertsifikatzeko gai izango

dira. Horrez gain, ikaskuntza sozialari eskola barruan eta kanpoan komunitatea egiteko erabilera ludiko desberdinak emango dituzten espazio komunitarioak, auzo hezitzailetan ekipamendu ireki gisa.

Ikasle, ikastetxe eta familien-gandik espero diren emaitzez berriz, esan du ikasle guztiek eskola patioko espazioa har dezaten lortzea espero duela, "emakumezkoena eta inaktiboena barne". Horrekin batera, eskola-patioa okupatzen den bitartean jolasteko eta mugitzeko aukerak handitzea eragingo duela ere uste du, eta ikasleen jabetza sentimendua eta ongizatea areagotzea ekarriko duela ere bai. Ikastetxei dagokionez, berriz, patioak hezkuntza leku gisa berreskuratzea nahi du udalak, horiek tresna pedagogiko gisa erabiliz. Familiekiko harremanak sendotzea ekarriko duela ere espero du, eta, halaber, gatazka egoerak murriztea eta erabilera desberdinetarako leku egokiak sortzea. Azkenik, familiei erreparatu, jolastokia eskola orduetatik kanpo elkartzeko eta sozializatzeko leku erakargarritzat hartzea nahi du erakundeak, eta eskola ordu-tegitik kanpo erabilili eta erabiltzaile desberdinak sustatzea ere bai.



Zuhaitzaren iguruan anfiteatro bat eraiki dute Sasoeta Zumaburu ikastetxean. TXINTXARRI



Irudian, Landaberri Garaikoetxea eraikineko patio inklusiboa. TXINTXARRI

37. Literatura Lehiaketan parte hart dezakete herritarrek

Lasarte-Oriako haur eta gazteek zein helduek literatur lehiaketan parte hartzeko deialdia egin du udalak

Txintxarri

Literatura lehiaketa herrian errotuta dagoen jardura bat da. Hori hala izanik, udaleko Kultura sailak haur eta gazteen, zein helduen 37. Lasarte-Oriako Literatura Lehiaketako

deialdia abiatu duela jakinarazi du. Gauzak horrela, egitasmo horretan parte hartu nahi dutenentzat oinarriak aditzera eman ditu.

Haur eta gazteen kasuan, herrian bizi diren edota ber-

tako ikastetxeetako ikasleak direnek parte hartu ahal izango dute; aurkeztuko dituzten lanak euskaraz idatziak izan beharko dira. Helduen kasuan, aldiz, Europar Batasunean bizi diren 2008. urtean eta aurrekoetan jaiotakoak aurkeztu ahal dira lehiaketara. Horien artean, Lasarte-Oriako erroldatutako 16 eta 26 urte bitarteko pertsonak (bi adin horik barne), espezialitate bakoitzeko Lasarte-Oria sariak ere eskuratu ahal izango dituzte.

Bi kasuetan, parte hartzaileek aurkeztuko dituzten lanak argitaratu gabeak izan behar dute, eta jatorrizko lanak formatu digitalean entregatu beharko dituzte. Horiek aurkezteko epea maiatzaren 10a izango da, 00:00ak arte.

Epaimahaia Kultura batzordeak izendatuko duela jakinarazi dute antolatzaileek, eta, bere epaia ezagutarazterakoan emango du argitara. Urriaren bilduko dela ere iragarri dute lehiaketaren arduradunek, eta

eta horren erabakia apelaezina izango dela ere bai. Nabarmendu dute baita ere saritu gabeko lanak ez direla itzuliko, baizik eta suntsitu egingo dituztela, eta saritutakoak, berriz, www.lasarte.oria.eus web atarian publikatuko dituzte. Sari bana-keta azaroaren 23an aurrera eramango dutela ere zehaztu dute. Kategoriatik bakoitzeko sariak zeintzuk diren eta beste-lako datuak jakiteko www.txintxarri.eus web ataria kontsulta ditzakete interesdunek.

EZLko langileen eskaerak onartu dituzte

Gai mamitsuak jorratu dituzte hilabete honetako ohiko udalbatzarrean: HAPO Hiri Antolamendurako Plan Orokorren txostena, tokiko merkataritza sustatzeko erosketa bonuak eta bi kolektibok aurkeztutako mozioak, beste kontu batzuen artean

Txintxarri

Udalaren etxez etxeko laguntza zerbitzuko (EZL) langileek, oraingoz behintzat, bertan behera utzi dituzte aurrera eraman asmo zituzten mobilizazioak, udal korporazioak haien eskaerak onartu eta gero. Gauzak horrela, zerbitzu hori erabiltzen dutenek 15 euro ordainduko dituzte orduko (gaur egun 19 euro pagatzen dituzte eta enpresa pribatuaren prezioa 16,5 eurokoa da) eta langileei soldatak eguneratuko dizkie udalak, KPIaren arabera. Aurten prestatuko dituzten pleguetan jasoko dituzte neurri horiek.

EZL zerbitzuko langileek mendekotasuna duten adineko pertsonen euren ingurune naturalean bizitzen jarraitzeko laguntza ematen diete: "Zaintzak garrantzi berezia izan behar du", argudiatu dute beharginek. Horrekin bat etorri dira alderdiak eta denek bozkatu dute baietz. Elkarrekin Lasarte-Oria Puede alderdiko bozeramaile Miguel Angel Tolosak esan du udalak ezin diela bizkarra eman langile horiei: "Babestu egin behar dugu egitasmo hori: batetik, herritarrek ahalik eta zerbitzu onena jaso dezaten, eta, bestetik, langileek baldintza duinak izan ditzaten". Ildo beretik mintzatu



Udal korporazioko kideak, EZLko zenbait langile parean dituztela. TXINTXARRI

da EH Bilduko kide Oihan Agirretxe, esan baitu "tresna estrategikoa" dela. Edonola ere, ohar-tarazi du Lasarte-Oriako zerbitzua "egoera larrian" dagoela, adibide bat jarrita: "65 urtetik gorako 4.860 pertsona bizi dira gure udalerrian. Hernanin, adibidez, 4.356 dira. Bada, bertako EZLko langileek 52.000 ordu lan egiten dituzte, eta, hemengoek, 16.191,5".

Herritar batzuek eratu berri duten Lasarte-Oria Osasun Publikoaren Alde (LOOPA) plataformarena izan da jorratu duten

beste mozioa. Osasungintza publiko eta kalitatezko bat helburu erakunde ugari interpelatzeko ari dira horren alde lan egitera, alor horretan eskumen gehiago ala gutxiago izan. Gure herriko osasun zentroaren eskumenak Gipuzkoako Foru Aldundiarenak eta Eusko Jaurlaritzarenak diren arren, eragileak uste du Lasarte-Oriako Udalak ere baduela zeregina, eta, ildo horretatik, korporazioari honako eskatu dio: bil dadila Osakidetza zuzendaritzarekin eta egoerari aurre egiteko talka plan

bat martxan jartzeko eta kudeatutakoaren berri emateko gero herritarrei.

HAPO eta bonuak

Egitasmo garrantzitsua da Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO), txosten horretan bildu dituztelako datozen pare bat hamarkadetakoa udalerraren ezaugarriak hirigintzari dago-kionean. Mahai gainera eraman dutena da proiektu hori behin-behinean onartu ala ez eta aurrera egin du proposamenak EAJ eta PSE-EEren aldeko botoekin. Aurka egin dute EH Bilduk eta Elkarrekin Lasarte-Oria Puede; abstenitu egin da PP.

Horren ostean, tokiko establezimenduetan erabiltzeko bonuen oinarriari heldu diete zinegotziek. Ia aho batez onartu dituzte baseak baina botoa azaltzerakoan ñabardurak egin dituzte alderdi batzuek. Hala, Antxordokik adierazi du datorren urterako erroka Aterpea merkatarien elkarte "erakartzea" dela. "Sozioekonomia zinegotzi Nuria Fernandez saiatu dela badakigu, ea 2025erako lortzen dugun". EH Bilduk ere egitasmoa babestea erabaki du "tokiko merkataritza sustatzeko ekimen garrantzitsu bat" delako. Edonola ere, baditu horri buruzko "kezka eta zalantza batzuk", Uxue Loinazek azaldu duenez: "batetik, ez dira islatu Aterpearen proposamenak, eta, bestetik, aurreko urteetan bonuak ez dira kudeatzeko errazak izan dendariantzat. Espero dugu aurten arazorik ez izatea". Bestalde, koalizio subiranistak uste du erosketa txartelenak "tokiko merkataritza sustatzeko plan estrategiko baten barruko ekimena" izan behar duela, ez "kanpaina soil bat".

Inauterietako dirulaguntzak eska ditzakete herritarrek

Aurten aurrera eramandako jarduerak finantzatzeko 14.542,85 euro ditu udalak

Txintxarri

Aurtengo inauterietako ospakizunetan zehar ekimenak aurrera eraman dituzten pertsona fisiko, juridiko edota konpartsa guztiek aukera dute ekarpen ekonomikoa eskatzeko, udalak jakinarazi duenez. 14.542,85 euroko lerro bat prestatu du jarduerak horiek finantzatzeko. Eskatzeko azken eguna maiatzaren 31 (ostirala) dela zehaztu du erakunde horrek. Interesa dutenek alta eman behar dute dirulaguntza eskatzaileen erregistro orokorrean eta "behar bezala" bete eskaera orria, "zehatz-mehatz" azalduta zer den garatu dutena eta zenbateko aurrekontua izan duen (sarrerak eta gastuak).

Lasarte-Oriako Udalak jarraian zerrendatutako irizpide hauek erabiliko ditu eskaerak baloratzeko: programaren aurrekontua, 40 puntu; parte hartzaile kopurua, hogeita puntu; jardueraren finantzazio tasa, hamabost puntu; ekimenaren ibilbidea edo errotze maila, hamar puntu; antzeko proposamenekiko koordinazioa, hamar puntu; eta entitatearen edo konpartsa fidagarritasuna, bost puntu.

Aurten ere udaberria loratu da Okendo plazan, azokarekin

XI. Lore eta Landareen merkatua aurrera eraman dute; jende asko ibili da jarritako hamabi postuetan

Txintxarri

Urtaroaren lehen herenera bitan, XI. Lore eta Landare azoka aurrera eraman zuten hilaren 20an. Dozena bat salmenta postutan erosteko aukera izan zuten herritarrek Behemendi Elkar-

teak, deKolare Natur Azokak eta Lasarte-Oriako Udalak antolatutako ekimenean. Askok izan ziren bertaratutakoak eta zer etxeratu topatu zutenak.

Lore sortak, landareak, zuhaixkak... berdez eta kolorez bete-

zuten zabalgunea, 10:00etatik 14:30era bitartean irau zuen ekimenean. Askotariko eskaintza zuten aukeran, tartean, eguzkilorea; postuetako batean haren hazia, lorea edo landarea eros zitekeen. Horrez gain, ukenduak, sendabelarrak, kosmetika edota bitxiak ere baziren. Hortaz, non aukeratu izan zuten herritarrek eta horretara animatu zirenak ez ziren gutxi izan.

Ohi bezala, txikienentzat zenbait joko ere jarri zituzten plaza erdian, beren kasa ibil zitez.



Herritar ugari bertaratu ziren Okendo plazako postuetara. TXINTXARRI



Ezker-eskuin, mahaiari. Cocho, Artetxe, Ormazabal eta Arruti. TXINTXARRI

Euskalgintzaz aritu dira, partaidetzaren ikuspegitik

Oreki fundazioak 'Berrikuntza politikoa esploratzen: Lasarte-Orian parte hartzea biziberritzeko ikaskuntzak' proiektuaren barruko hirugarren hitzaldia aurrera eraman du Ttakunenea elkartearen. Iker Artetxe, Mari Karmen Ormazabal eta Iñaki Arruti gonbidatu ditu

Iñigo Gonzalez Sarobe

Mikel Laboaren *Izarren hautsa* abesti ezagunaren doinupean sartu dira Ttakunenean hizlari eta ikus-entzuleak. Artista donostiarraren kantu horren letra a proposa izan daiteke euskalgintza zer den laburbiltzeko: "Eta horrela bizitzen gera, sortuz ta sortuz gure aukera, atsedetik hartu gabe: lana eginaz goaz

aurrera, kate horretan denok batera gogorki loturik gaude...". Bozgorailuaren bolumena jaitsi eta Orekiko kide Julen Cocho hartu du hitza, aurrera eramaten ari diren proiektua zertan den esplikatzeko. Planteatzen dutena da elkartegintza eta partaidetza sustatu aurretik beharrezkoa dela gaur egungo egoeraren "diagnosi egoki bat" egitea.

Horretarako, ikerketa kuantitatibo nahiz kualitatibo bat burutzen ari dira eta azken alor horren barruan daude asteotan egiten ari diren mahai inguruak. Azkenekoan euskalgintza izan dute hizpide, betiere partaidetzaren ikuspegitik.

Ttakun Kultur Elkartearen Koadrillategi egitasmoaren koordinatzailea eta eragileko lehenda-

karia dira Iker Artetxe eta Mari Karmen Ormazabal, hurrenez hurren. Hirugarren gonbidatuak, Iñaki Arrutik, harreman estua du euskara elkarte horrekin (sorreran parte hartu zuen, besteak beste) eta gaur egun Gipuzkoako Foru Aldundian lan egiten du, hainbat urtez Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuko buru jardun ostean. Cochok euskalgintza eta partaidetza uztartu dituen zenbait galdera bota dizkie eta bakoitzak beretik erantzun, ordu eta erdi inguruko saio bat egiteraino.

"Zerk motibatu zaituzte euskalgintzan parte hartzera?", izan da aurreneko galdera. "Nire kasuan, barruko behar pertsonal batek", erantzun du Arrutik. "Euskararekiko kultura, praktika eta egiteko modu jakin batzuk jaso genituen, gero ikastolan indartu zirenak. Ondoren, ordea, kalera atera eta jabetu ginen ezin genuela ginenak bezalakoak izan". Horren aurrean bi jokabide daudela azaldu du euskara teknikariak: "Itsasora salto egiten baduzu enbor modura, korranteak itsasoraino eramango zaitu; izokinaren jokabidea baduzu, aldiz, ibaian gora egin behar duzunez parte hartze sozialean aritzen bukatuko duzu, baldin eta egoera eraldatzeko gogo eta indarra baduzu".

"Ez zegoena sortzeko beharrak" bultzatu zuen Ormazabal Ttakun Kultur Elkartearekin harreman-tzera. "Begirale ikastaro bat egiten hasi nintzen eta mundu, ibai berri batekin topo egin nuen, ni bezain eroak zeuden beste izokin batzuekin". Beste premia batengatik murgildu zen Artetxe euskalgintzaren uretan: "Beharra dugu oraindik ere euskara bultzatzeko, sartu nintzen hori sentitu nuen eta horren

alde lan egiteak motibatu egiten nau, niri eman zidatena gaur egungo gazteei emateak".

Gaur egungo partaidetza

Gizartea nola, edozein ekimen aurrera eramateko parte hartzea ere aldatu egin da azken hamarkadetan. Horri buruz ere hausnartu dute gonbidatuak. Arruti: "Triste da horrela esatea baina iruditzen zait partaidetza soziala balore dekadente bilakatzen ari dela gaur egun, ez euskalgintzan soilik: horrenbeste letratzen ari gara individualismoarekin non ez dagoen ongi ikusia norberaren interesaren gainetik talde edo kolektibo batenak jartzun dituen pertsona".

Ormazabalek hasierako ideiarekin lotu du gogoeta, ez dagoen zerbait eratzearekin eta hori egin ostean gertatzen denarekin: "Uste dut, neurri batean, erlaxatu egin garela, zerbait sortu ondorenean normaltzat hartzera iritsi garelako. Edonola ere, euskararen aurkako zartakoak jasotzen jarraitzen dugu handik eta hemendik eta borrokatzen jarraitu behar dugu".

Esan bezala, Koadrillategi egitasmoa koordinatzen du Artetxek eta 12 eta 16 urte arteko gazteekin aritzen da batez ere. "Euskara erabili behararen premia ez dute belaunaldi zaharrek bezainbeste sentitzen, hizkuntza galtzeko arrisku hori ez dute ikusten, egoera normala da beraientzat. Ttakunek lan asko du egiteko norabide horretan".

PARTAIDETZA SUSTATU AURRETIK "DIAGNOSI EGOKI BAT" EGITEA DA OREKIKOEN XEDEA

Spain Skills lehiaketan parte hartu du Ibai Agirresarobek

Ikasle usurbildarra bigarren izan da Kontrol Industrialeko espezialitatean; bere lana nabarmendu dute epaileek

Txintxarri

Usurbilgo Lanbide Eskolak (ULE) ordezkari izan du Espainiako Gobernuko Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol ministerioak antolatutako trebetasun txapelketan. Euskal Selektioarekin

lehiatu da Ibai Agirresarobe ikasle usurbildarra, Kontrol Industrialeko espezialitatean. Bigarren postua lortzeaz gain lehiakide eta epaileen aitortza jaso du egitasmo horretan erakutsitako "jarrera on eta lane-

rako konpromisoagatik". Hilaren 9tik 13ra aurrera eraman dute aurtengo Spain Skills. Agirresaroberen irakasleek azpimarratu dute ez dela makala izan gazteak egin duen lana, lehiaketa horretara "ongi prestatuta iristeko". Unibertsitateko ikasketak uztartu ditu txapelketarako egin beharreko lanekin, asteburuak horretarako erabili. Iazko Eusko Skills irabazi zuenean poltsikoratu zuen estatutu mailako ekimen horretan jarduteko txartela.



Agirresarobe, erdian. TXINTXARRI

Hilabeteotan egindako lana eta Spain Skills lehiaketan parte hartzeko ilusioa ez dira alferrikakoak izan eta Agirresarobe bigarren izan da Kontrol Industrialeko espezialitatean. Horrez gain, bere jarduna balioan jarri dute. "Topikoa izan arren, txapelketa hauetan guztiek irabazten dute: trebetasunak garatzeak aukerak sortzen ditu eta pertsonak gizartearekin konektatu. Etorkizuneko enplegu abaguneekin lotzen dituzte ikasle gazteak".

Festa giroan bukatuko dute ikasturtea

Maiatzaren 14an elkartuko dira aurtengo ikasturtean GurasoLeku egitasmoan parte hartu duten familiak. Jaialdi bat prestatu dute Ttakun Kultur Elkarteak eta udalak horientzat, Geltoki kale eta Okendo plaza artean aurrera eramango dutena

Txintxarri

GurasoLeku egitasmoan parte hartu duten familien biltoki izango da herriaren erdigunea maiatzaren 14an, asteartearekin. Egun horretan ikasturtea ixteko festa bat aurrera eramango dute partaideek, Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak elkarlanean prestatu duten egitarauko jardueretan parte hartuta. Hauek izango dira: musika, dantza, askaria, talde argazkia eta diploma banaketa. 17:00etan hasiko dira.

Udaleko Euskara saileko buru Jon Antxordokik azaldu duenez, GurasoLekuren helburua da herriko haurrak elebidun oso bihurtzea, euskararen transmisioa familietan bultzatzearen bidez. Hiru adar ditu: GurasoLandia, GurasoTegi eta GurasoLagun. "Konektatu egiten ditugu familiaren, eskolaren eta herriaren gogoak nahiz baliabideak". Aurtengo kurtsuan 130 familia baino gehiagok parte hartu dutela jakinarazi du –aipatu hiru egitasmoetan eta TrukeLandian; azken horretan, hilabete behin elkartzen dira GurasoLandian ari diren gurasoak, esperientzia eta ezagutzak elkartrukatzeko–.

Ttakun KEko Kultura sailaren arduradun Arkaitz Illarramendik zehaztu du aipatu hiru adar horiek zertan diren. GurasoLagunen



Ezker-eskuin, Jon Antxordoki eta Arkaitz Illarramendi. TXINTXARRI

euskaraz aritzeko gaitasuna duen pertsona bat horretarako ohitura ez duen batekin elkartzen da. GurasoTegin, berriz, euskara eskolak jasotzen dituzte gurasoek, komunikatzeko oinarritzko gaitasunak lantzeko. Azkenik, GurasoLandian elkartzen dira arestian aipatutako bi adarretako partaideak, aisia jarduerak aurrera eramateko haurrekin.

Lan mahai batek koordinatzen du GurasoLeku: Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzua, Ttakun Kultur Elkarteak, Muntteri AEK euskaltegia, Sasoeta-Zuma-

buru eskola, Landaberri ikastola, Andrejoakinaenea haurreskola eta Burunzpe nahiz Landaberri guraso elkarteak parte hartzen dute foro horretan. Antxordokik azpimarratu du "erabateko aldaketa" eman dela herrian euskaraz ikasten duten umeen proportzioetan. "Orain hiru hamarkada, 1991-1992 ikasturtean, herrian eskolatutako haur zein Lehen Hezkuntzako ikasleen %27ak ikasten zuten D ereduan; gaur egun, berriz, guztiak. Horrek esan nahi du haur guztiak euskaraz dakitela, ezberdintasunak ezberdintasun".

Maiatzaren 5ean, erromeria

Maiatzaren 3a izango da Santikurutz eguna eta horren bueltan erromeria antolatuko dute Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak, 5erako (igandea). Egitaraua hauxe izango da: 10:00etan, taberna irekiko dute; 11:00etan, meza egingo dute ermitan; eta, 12:00etatik aurrera, herri kirolen erakustaldia eta trikitalarien emanaldia izango dira.



lazko erromeriako herri kirolen erakustaldia. TXINTXARRI

Toponimiaren webgunea zure eskura: toponimia.lasarte-oria.eus

LASARTE-ORIAren ondarea



Azkorte bidea seinalizatzen duen kartela. TXINTXARRI

Azkorte ermitara joateko bidea toponimoz eta historiaz beteta dago

Santikurutz eguna da maiatzaren 3a eta urnietarrak egun horretan igotzen dira Azkorteko basilizara. Lasarteoriatarrek, berriz, maiatzeko lehen igandean joateko usadioa dute, 1848. urtetik. Brunet oihal fabrika ezagunean lan egiten zuten Oriako auzotar ugari eta egun berezi hori asteguna izanez gero ezin ziren basilizara bertaratu. "Herriar horiek gurtu egiten zuten Azkorte eta Urnietako erretorearengana joan ziren Santikurutz osteko igandean meza egiten uzteko eskatzera", kontatu zion Sebastian Kerejeta lasarteoriatarrek aldizkari honi 2021eko maiatzean.

Lasarte-Oriatik Azkorterara igotzeko bidea toponimo bitxi eta historikoz beteta dago. Pentsa herriar batek maiatzaren 5eko erromeriara joateko asmoa duela eta Bekoerrotan bizi dela. Toki izen hori ez da ausazkoa, izan ere, XIV. mende amaieran errota bat jarri zuten martxan eremu horretan; XIX. mende amaierara arte funtzionatu zuen. Udalak bere webgunean jaso du "azpiegitura historikoa" izan zela hori, Mendaro erreka urek mugitzen zutena. Zertxobait aurrerago dago Bekokale bidea. Antza denez, hamarkada batzuk atzera Bekokale zen toponimoa baina desagertu egin zen. Gaur egun odonimo gisa erabiltzen dugu, grekerako *odos* (bidea) eta *nomos* (izena) hitzak batzetik datorrena.

Bekokale bidean barrena joan eta zubira iritsi aurretik, eskuinetara, Antxuenea plaza dago. Enparantza horrek izen bera zuen baseritik hartu zuen izena eta 2002tik aurrera erabiltzen dugu forma hori. Urte batzuk lehenago Antxuania topatu zuten ikerlariak dokumentuetan. Gauza bera gertatzen da aurreraxeago dagoen Loidi kalearekin, izen berbera zuen baserri bat baitzegoen han.

Azkorte bidean sartu aurretik badago historiaz betetako beste bat: Plazaolakoa, hain zuzen ere. Donostiatik Iruñera zihoan trenaren azpiegitura paseatzeko gunea bilakatu da. Plazaola izena Leitzaranean dagoen baserri batetik hartu zuen, lehen ibilgailua Plazaolako meatzeetatik materialak itsasortzeko eraiki eta erabili zutelako.



LASARTE-ORIAren ondarearen webgunea

QR kode hau eskaneatuz gero, Lasarte-Oriako toponimiari buruz gehiago jakiteko aukera izango duzu.



Bizipozak hartuko ditu Lasarte-Oria eta Hernani

Irabazi asmorik gabeko eragile horrek jaia eta jaialdia aurrera eramango ditu Buruntzaldeko bi udalerrri horietan hilaren 26an eta 27an, hurrenez hurren. Lasarteoriatarrek gonbidatu ditu aipatu bi jardueretan parte hartzera

Txintxarri

"Denona eta denontzat beharko lukeen gizarte inklusibo bat euskaratik eta euskaraz eraikitzea" helburu, Bizipoza Elkarteak pare bat ekimen aurrera eramango ditu gaur eta bihar (hilak 26 eta 27) Lasarte-Orian eta Hernanin, hurrenez hurren.

Lasarte-Oriako zenbait eragilek Bizipoza taldea eratu dute eta azken hilabeteetan buru-belarri lan egin dute herriko ikastetxeekin. Jorratutakoa erakutsi eta herria "zipriztintzeko" jaia aurrera eramango dute Okendo plazan (eguraldi txarra egiten badu, Oriarte Landaberri institutuan) eta Antonio Mercero aretoan, 15:15etik aurrera. Ordu horretan eskoletako ikasle eta irakasleek koreografia batzuk egingo dituzte Porrotx pailazoarekin batera; 18:00etan, elkarteak ariko dira Euskararen 10. Martoialdiko zortzikoteko kideekin; eta, 18:30ean, Bizipoza Eskola egitasmoa aurkeztuko dute eta gonbidatu ugariarekin mahai inguru bat egingo.

Bizipoza Elkarteak koordinatzaile Leire Elizegiren esanetan, ikastetxeetako irakasleek Bizipoza Eskolari buruzko aurkezpen-formakuntza jaso dute arduradunaren eskutik. Horrez gain, Haur Hezkuntzako zein



Bizipozaren jaialdia aurkezteko ekitaldia Hernanin egin zuten. HERNANIKO UDALA

Lehen Hezkuntzako mailetako haurrek ere izan dute ekimenaren berri, Porrotx pailazoak egindako saio ludikoago batzuen bidez. Azkenik, hezkuntza zentroak hasi dira proiektuan jasotako gaiak lantzen. "Hezkuntza inklusiboaren beharrari" erantzutera dator proiektu hori, "denona eta denontzat izango den Euskal Herria eraikitzeko".

Egun osoko festa

Lasarte-Oriatik, Hernanira. Egun osoko festa aurrera eramango du Bizipoza Elkarteak bihar,

Atsegindegin. Gaixotasunak, familia ereduak, inklusibitatea eta beste hainbat alor jorratzen dituzten 38 elkartet osatzen dute sarea eta jai nahiz aldarrikapen giroko ekimen horretan parte hartuko dute.

Egitarauko ekimenak 10:30ean hasiko dira eta arratsaldera arte luzatuko. Atsegindegi izango da gune nagusia baina Urbieta kalean eta Biteriko plazan ere jarduera batzuk aurrera eramango dituzte. Informazio gehiago duzue www.txintxarri.eus atari digitalean.

Aurrematrikulatzeko epea irekiko du Udal Musika Eskolak

Maiatzaren 2tik 10era izango dute izena emateko aukera herritarrek, Manuel Lekuona Kultur Etxean

Txintxarri

Maiatzaren 2an irekiko du aurrematrikulatzeko epea Udal Musika Eskolak, ostegunarekin. Interesa dutenek Manuel Lekuona Kultur Etxeko bigarren solairura joan beharko dute

09:00etatik 14:00etara edota 17:00etatik 19:30era (maiatzaren 7an eta 9an soilik). Egun eta ordu horietan egoitzara joaterik ez dutenek musikaeskola@lasarte-oria.eus helbide elektronikora idatz dezakete. "Gus-

tura erantzungo ditugu lasarteoriatarren zalantza guztiak", adierazi dute eskolaren arduradunek.

Eskaintza zabala prestatu dute Udal Musika Eskolan jardun nahi dutenentzat: 4 eta 7 urteko umeentzako musika tailerrak, pianoa, gitarra klasikoa edota elektrikoa, tronpeta, trikitixa, akordeoia eta beste instrumentu ugari jotzen ikasteko aukera. Aurrematrikula egiteko azken eguna maiatzaren 10a izango da, ostirala.



Gurutzetako Ospitalea, kanpoaldetik. WIKIMEDIA COMMONS

Gurutzetako Ospitalean artatzen ari dira Alex Garcia herrikidea

Pankreatitis bat tarteko bi hilabete eman ditu Tailandiako Bangkok hiriko ospitale pribatu batean

Txintxarri

Alex Garcia herrikidea hilaren 21ean Euskal Herriratu zuten, hegazkin militar medikalizatu batean. Loiuko aireportuan lur hartu ostean Gurutzetako Ospitalera eraman zuten pairatzen ari den pankreatitisa artatzeko. Bi hilabete eman ditu Tailandiako ospitale pribatu batean.

Garciaren senide eta lagunak "lasaiago" daude orain, pazientea Euskal Herrian artatua izaten ari delako. Uneotan Gurutzetako Ospitaleko ZIU unitatean ingratsatuta dago eta datozen egunetan bertan jarraituko duela aurrera-

tu dute medikuek. *El Diario Vasco* hedabideak argitaratutako albiste baten arabera, Garciarekin Tailandiatik itzuli ziren medikuek hodiak kentzea erabaki zuten hegaldi betean eta "hobera" egin zuen. Garcia bueltan ekarri duen abioia Espainiako Defentsa Ministerioak prestatu du.

Familia eta ahaideek dirua biltzeko kanpaina bat aurrera eraman dute azken egunetan, Tailandian ingratsatuta eman dituen egunetako eta azkenean erabili ezin izan zuten hegazkin medikalizatu ordaintzeko asmoz. 114.445 euro bildu dituzte.



TXINTXARRI

Maryren bizitzaren lekukotza

Tantta Teatroak *Esnearen kolorekoa* antzezlanaren ekarri du Manuel Lekuona Kultur Etxera eta herritar ugari bertaratuta da aurpegi ezagunek osatutako aktore taldeen lana ikustera. Aitziber Garmendia protagonistarekin batera, Joseba Apaolaza, Miren Arrieta, Mireia Gabilondo, Jon Olivares eta Jose Ramon Soroiz aritu dira.



Añorgako gazte asanbladako, Orioko Etxeluze gaztetxeko, Usurbilgo Elkarguneko eta Donostiako Birundiko kideen testigantzak jaso dituzte hil honetako borobileen. TXINTXARRI

Txintxarri

Borobileen elkarteko kide gazteek proposatutako gaiaren ildotik aurrera eraman dute hil honetako borobila. Gazte horiek bildu, antolatu eta elkarbizitzeko espazio baten beharra antzeman dute (hala erakusten du espazioen inguruan egin duen lanketak), eta horren inguruan hausnartzeko asmoz aurrera eraman dute azken saioa. Horretarako, gainera, lau eragiletako kideak gonbidatu dituzte, horien eskutik gaiarekiko euren esperientzia eta bizipenak jasotzeko.

Antolatzaileek Oriarte Landa-berri institutuan bildutako ongi-erria eman eta Añorgako Gazte Asanbladako kideei eman diete hitza saioari hasiera emateko. Eta hizketarako gaia bideratu asmoz, antolatzaileek galdetu diete ea gaztetearen kudeaketa eta administrazioarekiko harremana nolakoa den. Hizlariak azaldu dute erabakiak batzarrean hartzen saiatzen direla. Saio horiek irekiak direla ere aipatu du. Institutioekin zer-nolako harremana duten galdetuta, erantzun dute "zorionez edo zoritxarrez" ez dutela erakundeekin harremanik eduki beharrik. Kontatu dute Cementos Rezola dela gaztetearen eraikinaren jabea, eta lantegi horren lur horiek kudeatzen dituen, berriz, Añorga Kultur eta Kirol Elkarte. Azken horrekin duten harremana "ona" dela nabarmendu dute, eta, esan, elkarlana ere badagoela. Luze eta zabal jarraitu dute gaiaz hizketan, eta Añorgan espazio

Gaztetea izan dute hizketagai

Saio berri bat aurrera eraman du Borobileen elkarteak. 'Lasarte-Oriak gaztetea behar du?' lelopean, espazioen gaineko hausnarketa egin dute bertaratu direnek. Horretarako, gisa horretako espazioak martxan dituzten lau eragiletako kideak gonbidatu dituzte saiora

horren erabilera sorreran nola izan zen ere jakin ahal izan dute aretoan bildutakoek. Orduko testigantzak kontatu ditu saioa ikustera joandako kide batek.

Orioko Etxeluze gaztetxeko kideen txanda izan da gero. Erabakiak zortzi bat kidek osatutako batzar bitartez hartzen dituztela azaldu dute horiek. Beste hainbat hizketagairen artean, azaldu dute belaunaldi arteko transmisioa nola ematen den. Hori "era naturalean" gertatzen dela kontatu dute, kide berriak "kuriositatez" gerturatzen direla gaztetea. Horrez gain, landu duten hezkuntza proiektu

AÑORGAKO, ORIOKO, USURBILGO ETA DONOSTIAKO GONBIDATUAK IZAN DIRA HITZALDIAN

baten berri ere eman dute; horren helburua da herri ikastolako eta herri eskolako zein musika eskolako ikasleak, txikitatik, gaztetearekin harremanetara.

Usurbildarren txanda izan da gero; herri horretako kultur-gunearen izenean hitz egin dute bi hizlariak, Elkarguneaz; baina ez begirada horretatik bakarrik, izan ere, bi kideak udal ordezkariak ere badira, eta ikuspuntu horretatik ere bideratu dute euren azalpena. Azaldu dute oraindik definitu gabe dagoen proiektu bat dela, sortzen ari dena, eta gazteak, aisialdian dabilen hezitzaileak, kultur-gileak batuko dituen "konfuentzia espazio bat" izango dela. Gaineratu dute une honetan Elhuyarrek dinamizatutako proiektuarekiko parte hartze prozesu batean murgilduta daudela, eta asmoa dela proiektu hori aurtengo ikasturtean definitzea. Kontatu dute

Usurbil gazteterik gabe geratzeak gazte mugimenduan etenaldi bat eragin zuela, eta hori berpiztu asmoz, espazio baten beharraz hausnartzen hasi zirela. Horrela, herriko gainerako eragileen parte hartzearekin gai horri buruzko lanketa egiten hasi zirela. Ibilbide horrek gaurdainoko prozesura eraman ditu usurbildarrak. Gaineratu dute, egun, beste laurekin batera, Usurbilgo Udala ere badela proiektu horretan parte hartzen ari den eragileetako bat; ez hori bakarrik; erakundearentzat "proiektu izarretako bat" ere badela aipatu dute. Zehaztu dute une

HERRIKO GAZTEEN BEHARREN ASEGABETZEA "UKAEZINA" DELA NABARMENDU DUTE

honetan eraikiko den espazio horren kudeaketa nolakoa izango den eta proiektuaren definizioa eta hori ixtea baino ez direla falta.

Birunda Donostiako Alde Zaharreko gune autogestionatuako partaideek hitz egin dute gero. Euren ereduaz mintzatu dira, eta, azaldu, okupazioaren, transfeminismoaren eta beste zenbait esparru eta mugimendutatik datozen kideak batu direla Birundan. Borobilaren antolatzaileek galdetu diete nolakoa izan zen euren gunearen okupazioa, eta, esan dute, Alde Zaharreko okupatu aurretik, "gune periferikoago baten" espazioa okupatzeko saiakeraren bat egin zutela, baina horiek ezinezko izan zirela, eta horregatik hartu zutela Abuztuaren 31n dagoen espazioa. Azpimarratu dute bertan elkarbizi nahi dutenentzat "gutxieneko oinarri batzuk" zehaztuta dituztela, besteak beste espazioa, transfeminista, antikapitalista, antifaxista, antiarrazista eta antiespezista dela. Epaiketa bat ere izan dute, eta horren gainean antolatzaileek egindako galderaren inguruan aipatu dute ez zela oso ondo joan, baina aterarazte agindurik egon ezenez, bertan jarraitzen dutela. Beste hainbat kontu ere izan dituzte ahotan, hala nola, bizilagunekin elkarbizitza nolakoa izan den, edota zein etorkizun ikusten dioten guneari.

Lasarte-Oriako gazteak

Gonbidatuen parte hartzea eskertu dute antolatzaileek, eta beraiek hartu dute hitza. Kontatu dute gaur egun herriko gazteen beharren asegabetzea "ukaezina" dela, eta Elebeltz espazio autogestionatuaz mintzatu dira gero. Aipatu dute haren galerak "izugarritzko zuloa" utzi zuela herrian, eta oraindik ere horren ondorioak pairatzen dituztela. Hain zuzen ere, hori kontuan hartuta aldarrikatzen dute herriak gaztete bat behar duela, eta hainbat arlori begira jarriaz, gazteek topatzen dituzten problematikez mintzatu dira. Honako arloak jorratu dituzte: Gaztelekuak, etxebizitzaren problematika, eztabaida politikoa eraikitzeke eskubidea, Lasarte-Oriako gazteen saretzea, eta kulturaren kontsumoa. Amaitzeko azaldu dute komunitatea eta elkarlaguntza bultzatuz eraikiko dutela gaztetea, eta horrek ahalbideetako duela "gizarte indibidualista honetan denontzako espazio autogestionatu, seguru, feminista eta euskaldun bat eratzea".

Zudairek, bi domina Europako txapelketan

Igeriketa egokituko Europako txapelketa lehiatzen ari da Madeiran, Portugalen. Buruntzaldea IKTko Nahia Zudaire bi probatan lehiatu eta podiumera igo da, baita Espainiako errekor berria ezarri ere. Taldeko alebinek, aldiz, ligako jardunaldia izan dute

Txintxarri

Buruntzaldea IKTko Nahia Zudaire igerilariak hitzordu garrantzitsuari egin dio aurre. Zubietako igerilariak hilaren 21etik 27ra Madeiran, Portugalen lehiatzen ari den igeriketa egokitutako Europako txapelketan parte hartu du eta podiumera igo da.

Zudairek bi probatan egin du igeri: S8 mailako 400 m. libre eta SB7 kategoriako 100 m. bular. Bietan finala jokatu du zuzenean eta zilarrezko eta brontzezko domina bana eskuratu ditu, hurrenez hurren. Espainiako errekor berria ere ezarri du bular proban.

Iraupen ertaineko proba izan zen lehena, hilaren 27an. Xenia Palazzo italiarra zuen aurkari Buruntzaldea IKTko kideak. Probako irteera eman eta uretara sartu bezain pronto burua hartu zuen italiarrak eta aldea



Nahia Zudaire, eskuraturako dominekin. BURUNTZALDEA IKT/INCLUSWIM

irekitzen joan zen luzez luze. Zudairek atzetik bere erritmoa mantendu eta 05.08,29ko marka eginez, zilarrezko domina jantzi zuen.

Bi egun geroago, bular estilo-ko lehia izan zuen igerilari gazteak. Munduko txapelketan zer esana eman duen Iona Winnifrih britaniarraren -13 urte bete be-

rri ditu eta txapelketa horretan bitan lortu du Europako txapel-dun titulua- eta Mariia Pavlova kirolari neutralaren atzetik iritsi zen Zudaire helmugara. 01.32,79ko marka eginez, bere marka ondu eta Espainiako errekor berria ezarri zuen Buruntzaldea IKTko igerilariak.

Paralinpiar Jokoak

Lehiaketa amaitu du Zubietako igerilariak, baina aurtengo helburua Parisko Paralinpiar Jokoak dira eta Zudairek ez du atsedetik izango.

Bere deialdia ziurra ez den arren, marka gutxienekoak eskuan ditu igerilari gazteak eta bigarren hitzordu garrantzitsuan egoteko aukera handiak ditu. Horregatik buru-belarri ari da lanean eta horren adibide dira, azken hilabeteetako txapelketak zein Espainiako selekzioarekin hilabete hasieran Sierra Nevada egindako alturako entrenamendua.

Euskadiko selekzioarekin

Txapelketei dagokionez, Mallorkako Palman, Balear Uharteetan, Igeriketa Egokituko Erkidegoen arteko Espainiako Txapelketan parte hartu zuen Zudairek Euskadiko selekzioarekin martxo amaieran.

Marka pertsonalik lortu ezin izan zuen arren, lehen postuetan izan zen igerilaria. 200 m. libre

(02.34,74) eta 100 m. bular (01.36,01) probetan garaile izan zen. 50 m. tximeletan ere podiumera igo zen; hirugarren izan zen (38,71). Eta, azkenik, zazpigarren sailkatu zen 100 m. libre (01.11,81) saioan.

Gaztetxoak ere bikain

Bestalde, Buruntzaldea IKTko alebinek Tolosan lehiatu zuten euren ligako seigarren jardunaldia. Usabalgo igerilekuan batu ziren gaztetxoak eta ederki jardun ziren.

Neskek 800 m. libre eta bular estiloko 200 metro probari egin zioten aurre eta Itsaso Iparragirre bietan izan zen lehen postuetan. Lau estiloetako 4x100 m. erreleboa ere izan zuten eta hirugarren sailkatu zen igeriketa taldeko laukoa. Mutilek, aldiz, bizkar estiloko 100 metro zein bular estilo 200 metro probetan egin zuten igeri eta Oier Jauregi lehenen artean ibili zen. Aitor Ormazabal ere bular estiloko 200 metro bular eta tximeleta probetan lehiatzen izan zen.

Maila horretako gaztetxoek maiatzaren 4an izango dute hurrengo hitzordua, Tolosan. Eta data eta leku berean ere, taldeko txikiek Kirol Zehaztasun Ligako saioa izango dute.

Bien bitartean, igeriketa taldeko infantil, junior zein absolutu mailako kideek Kluben arteko Gipuzkoako Kopa lehiatuko dute, hilaren 27an eta 28an, Irungo Azken Portu kiroldegian.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONALA
Ostadar SKT - Inbxaudi KE Larunbata. 16:55. Michelin kirol gunean.
GORENGOEN MAILA
Ostadar SKT - Hondarribia FE Larunbata. 18:50. Michelin kirol gunean.
ERREGIONAL I. MAILA, IGOERA
Aloña Mendi KE B - Texas Lasarte CF Larunbata. 17:30. Azkoagain, Oñatin.
ERREGIONAL I. MAILA, KOPA
Ostadar SKT - Astigarragako Mundarro FKE B Igandea. 11:30. Michelin kirol gunean.
OHOREZKO JUBENILA
Lengokoak KE - Ostadar SKT Igandea. 19:30. Cesar Benito, Donostian.
JUBENILEN I. MAILA, IGOERA
Texas Lasarte CF - Hernani CD C Larunbata. 13:05. Michelin kirol gunean.
Ostadar SKT B - Elgoibar CD B Larunbata. 15:00. Michelin kirol gunean.
JUBENILEN I. MAILA, GIP. KOPA
Danena KE C - Ostadar SKT C Larunbata. 15:30. Elbarrena, Zizurkilan.

OHOREZKO KADETEA
Ostadar SKT - Beti Ona CD Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.
KADETEEN I. MAILA, GIP. KOPA
Texas Lasarte CF - Euskalduna Andoaindarra SD B Igandea. 09:45. Michelin kirol gunean.
Touring KE B - Ostadar SKT (neskak) Igandea. 11:15. Fanderia, Errenterian.
Orrioko FT B - Ostadar SKT B Igandea. 12:00. Mendibeltz, Orion.
K. I. MAILA, UD. KOPA, KANPORAKETA
Ostadar SKT C - Gure Txokoa KKE B Igandea. 13:25. Michelin kirol gunean.
ARETO FUTBOLA
III. MAILA, KOPA
Eguzki ISU Leihoak - Laskorain KE Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kiroldegian.
GAZTEEN MAILA
Mondrate CD - Eguzki Bodegas Ayesa Igandea. 13:00. Iturripe kiroldegia, Arrasaten.
INFANTILEN MAILA
Antiguoko KE B - Eguzki Bar Escalerilla Larunbata. 13:15. La Asuncion ikastetxea, Donostian.

SASKIBALOIA
I. MAILA
Mondragon Unibertsitatea - Ostadar SKT Igandea. 16:15. Iturripe kiroldegia, Arrasaten.
III. MAILA
Saski Axular - Ostadar SKT Larunbata. 20:00. Benta Berri kirol., Donostian.
JUNIOR ERRENDIMENDUA
Ostadar SKT - Ordizia Orbinox Larunbata. 12:00. Maialen Chourraut kiroldegian.
KADETE ERRENDIMENDUA
Innova Hertz Klinika ISB - Ostadar SKT Larunbata. 16:00. Udal kiroldegia, Azpeitian.
KADETE PARTAIDETZA
Goierri Buenbokado - Ostadar SKT Igandea. 10:45. Aldiri kiroldegia, Urretxun.
INF. ERRENDIMENDU URREA, 2. FASEA
Ostadar SKT - ZAST Lynx Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kiroldegian.
BOLEIBOLA
SENIOR MAILA
Ostadar SKT - Vendetta M. Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kiroldegian.

JUBENIL MAILA, 11-14 P.
Ostadar SKT - Ipar Titanak Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kiroldegian.
KADETE MAILA
Ostadar SKT - Goierri KE B Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kiroldegian.
EUSKADIKO TXAPELKETA, INFANTILA
Getxo Etorki - Ostadar SKT A Igandea. 12:00. Getxo, Bizkaian.
PILOTA
LAU TERDI TX., 2. MAILA
Ospele - Intza KE (Diaz de Gereñu) Ostirala. 19:30 (1. partida). Udal pil., Orion.
GIPUZKOAKO TX., EM. INFANTILAK
Intza KE (Iparragirre) - Alde Zaharra Larunbata. 16:00 (2. partida). Kirol guneko pil.
UDABERRI TX., INFANTILAK, 2. MAILA
Intza KE 1 - Hernani 2 Larunbata. 16:00 (3. partida). Kirol guneko pil.
Mundarro 2 - Intza KE 2 Larunbata. 16:00 (4. partida). Udal pilotalekua, Astigarragan.
UDABERRI TX., INFANTILAK, 3. MAILA
Intza KE - Goierri 3 Larunbata. 16:00 (1. partida). Kirol guneko pil.

IGERIKETA
KLUBEN ARTEKO KOPA
Buruntzaldea IKTko infantil, junior eta absolutu mailako igerilariak Gipuzkoako Kluben arteko kopa lehiatuko dute. Larunbata eta igandea. Azken Portu kiroldegia, Irunen.
ATLETISMOA
GIPUZKOAKO TXAPELKETA
Herriko atletek aire libreko master zein adin txikiko Gipuzkoako txapelketa jokatu dute. Larunbata. Mini estadioa, Donostian.
Ostadar SKTko atletak alebin mailako talde/ikastetxeen arteko Gipuzkoako Txapelketan parte hartuko dute. Igandea. 10:00. Berazubi, Tolosan.
ERRUGBIA
18 URTEZ AZPIKOA, FINAL ERDIA
Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - Getxo RT Larunbata. 16:00. Asti, Zarautzen.
16 URTEZ AZPIKOA
Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - Uribealde Gatik Larunbata. 10:30. Asti, Zarautzen.

Herriko atletak lehen postuetan izan dira

Ostadar Atletismo saileko kideak zein Atletico San Sebastian taldeko Hodei Murgiondo Eskolarteko Gipuzkoako txapelketako bigarren jardunaldian lehiatu dira, Arrasaten. Finaletan izan dira herriko ordezkariak eta podiumera ere igo dira atleta gazteak

Txintxarri

Eskolarteko Gipuzkoako txapelketako bigarren jardunaldia lehiatu zen Arrasaten, hilaren 21ean. Ostadar SKTko kideak zein Atletico San Sebastian taldeko Hodei Murgiondo herritarra lehian izan ziren eta hainbat probatan lehen postuetan izan ziren. Dominak ere jantzi zituzten herriko taldeko kideek.

Zehazki, Eider Redondo eta Oier Jauregi izan ziren podiumera igo ziren atleta gazteak. Aurreko jardunaldiaren antzera, Redondo infantil mailako bi probatan izan zen garaile: luzera jauzian eta 80 m. lasterketan. Jauregik, aldiz, kolore ezberdineko bi domin eraman zituen etxera alebin mailan; zilarrezkoa, 60 m. lasterketan eta brontzezkoa, jauzi hirukoitzean.

Horiez gain, finaletan izan ziren talde urdin-beltzeko hiru kide zein Atletico San Sebastian taldeko Hodei Murgiondo herritarra.



Eskolarteko txapelketako bigarren jardunaldian parte hartu zuten atletak. OSTADAR ATLETISMOA

Murgiondo infantil mailako pisu jaurtiketa proban bosgarren izan zen eta zortzigarren, 80 m. lasterketan. Ostadarreko kide Nahia Garcia alebina laugarren izan zen jauzi hirukoitzean, maila bereko Amelie Flores bosgarren izan zen vortex jaurtiketan eta Uxue Altuna infantila zazpigarren, 80 m. lasterketan.

Hurrengo lehiak

Hilaren 27an, aire libreko Adin txikiko zein Master mailako

Gipuzkoako txapelketa jokatu da Donostiako Kote Olaizola Mini Estadioan eta bertan izango dira herriko atletak.

Bestalde, maiatzaren 1ean, Donibane Lohizuneko Kechiloa Estadioan, Pirinioarteko Trofeoaren 2. edizioa jokatu da. Gipuzkoako selekzioak parte hartuko du lehian eta deialdia argitaratu du; Ostadar SKTko Aiala Ramos (xabalina jaurtiketa) eta Eider Redondo (luzera jauzia) daude zerrendan.



OSTADAR INKLUSIOA

Lehen postuak, Espainiako lehian

Ostadar Inklusioa taldeko kide Markel Uzquiano eta Xuban Santinek gazte mailako Espainiako txapelketa jokatu zuten Valladoliden eta emaitza ederrak eskuratu zituzten. Euskadiko selekzioarekin lehiatu eta lehen postua lortu zuten taldeka. Ez hori bakarrik, BC2 mailan, Santinek sei partida irabazi eta Estatuko txapeldun titulua eskuratu zuen, baita txapelketako kirolari onenaren saria ere. Uzquianok, aldiz, debuta egin zuen txapelketan. Bost partidetatik bi irabazi eta BC1 kategoriako seigarren postuan sailkatu zen.

Pablo Ucerro, txapeldun

Gipuzkoako Halterofilia txapelketa jokatu zen hilaren 20an, Villabonako Olaederra kiroldegian. Lurraldeko 50 bat kirolari bildu ziren eta Danok Danena taldeko Pablo Ucerro herritarrek 73 kilo azpiko mailan parte hartu zuen lehian. Abiada (97 kg.) eta Jasotze altzate (115 kg.) probak egin ostean, 288,468 puntu eskuratuta podiumeko maila gorenera igo zen.



P. UCERO

Eskolarteko mailako gimnastak, Gipuzkoako txapelketako finalean

LOKEko kirolariek lan ederra egin dute bigarren sailkapen saioan; gehienak lehen postuetan izan dira

Txintxarri

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) gimnastak lan ederra egin dute Eskolarteko Gipuzkoako txapelketako bigarren saioan; guztiak lortu dute finalerako txartela.

Donostiako Karmelo Balda kiroldegian bildu ziren alebin eta infantil mailako kirolariak hilaren 20an eta 21ean. Taldean zein bakarka LOKEko kideek euren onena eman eta ederki gozatu zuten tapizean tresna ezberdinekin osatutako lanak erakusten.



Alebin B taldea. LOKE GIMNASTIKA

Euren maileko lehen zortzien artean sailkatu ziren (ikus ondoko koadroa) guztiak eta batzuk gainera podiumeko lehen edo bigarren mailan izan ziren. Emaitza horiei esker, Gipuzkoako finala lehiatuko dute guztiak.

LOKEko prestatzaileak pozarren daude gimnasta gazteek egindako lanarengatik.

Finalak, maiatzen

Maiatza hilabete garrantzitsua izango da herriko gimnastentzat. Hil horretako 5ean, Lasarte-Oriako ordezkariak Amateur mailako finalari egingo diote aurre Tolosan. Bi lan aurkeztu behar dituzte eta mailaren arabera, xingola, pilota, uztaia edo borrekin euren trebetasuna erakutsi beharko dute. Gimnasta gazteen txanda, aldiz, maiatzaren 11n izango da Irunen.

Emaitzak

Alebin C maila

- Landaberri G 1^a/6^o.
- Landaberri P 8^a/3^a.

Alebin B maila

- Landaberri G 1^a/4^o.
- Landaberri P 4^a/3^a.
- Oihane Portuburu 4^a/
Portuburu+Rodriguez 2^a.

Alebin A maila

- Aiala Jimenez 1^a/2^a.
- Laia Suberbiola 2^a/1^a.

Infantil C maila

- LOKE 1^a/4^a.

* Saioan lortutako postua/
sailkapen orokorreko postua

LOTMEk Udalaitzera antolatu du irteera maiatzean

Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarrekin (LOTME) bazkide eta lagunei zuzendutako irteera berria antolatu du. Maiatzaren 12an, Arrasatetik Udalaitz eta Besaide mendi gailurrak helduko dituzte.

Kirol elkarteko kideek jakitera eman dutenez, ibilbidearen hasieran egongo da zatirik gogorrena; Arrasatetik Udalaitz igoko dute zuzenean eta zazpi kilometrotan 900 m. positiboko desnibela egongo da.

Txangoaren gaineko informazio zehatza kirol elkartearen webgunean (www.lasarteoria-trail.com) dago eskuragarri, baita izena emateko formularioa ere.

Sestaok finalerdietarako atepak itxi dizkio Ostadarri

Ostadar Boleibola saileko Euskal Ligako 2. mailako taldeak Junior mailako Euskadiko txapelketa jokatu du, Fadura kiroldegian, Getxon. Sestao izan du aurkari final laurdenetan. Talde bizkaitarraren esperientzia gailendu da eta Ostadarrek ezin izan du txapelketan aurrera egin

Txintxarri

Boleiboleko Junior mailako Euskadiko txapelketa jokatu zen hilaren 20an, Getxon. Lehiakideen artean, Ostadar Boleibola ataleko 2. mailako Euskal Ligako taldea izan zen. Talde urdin-beltzak lehia ederra egin arren, ezin izan zuen txapelketan aurrera egin.

Asier Acuriola entrenatzaileak azaldu duenez, "2. mailako Euskal Ligako taldearen muina junior mailako jokalariez osatuta dago eta jubeniil batzuek indartuta txapelketan parte hartzeko aukera izan dugu".

Final laurdeneko zozketan ez zuten zorterik izan, ordea. Azken bi urteetan txapelketan izan den Sestao izango zuen aurrez aurre, gerora txapelketan izango zen talde bizkaitarra.

Hala ere, gogo eta ilusio handiz egin zion aurre taldeak erronkari eta tantoak ederki borrokatu zituen. Baina Sestaoko taldeak ez zuen huts egin nahi. Talde urdin-beltzaren ahulguneak bilatu eta hutsak baliatuz neurketa 25-13 eta 25-21 eskuratu zuten bizkaitarrek.

Neurketan erakutsitako jokoarengatik, Ostadarrek lehen lauen artean egotea merezi zuela uste du entrenatzaileak: "Taldea lehiakorra eraman genuela uste dut.



Junior txapelketan parte hartu duen Ostadarreko taldea. OSTADAR BOLEIBOLA

Laurdenetan Sestaori ongi egin genion aurre. Baina gurea baina maila gorenetan lehiatzen diren jokalariek dituzte eta horrelako talde baten aurka akatsek balio handia dute. Pena izan da".

Denboraldi amaiera

Horrez gain, taldeak eta prestatzaileak eskerrak eman nahi dizkie txapelketan animoak ematera joan ziren senide eta Ostadarreko maila ezberdinetako taldeetako kideei: "Guztira 52 pertsona joan ginen autobusean Lasarte-Oriatik. Festa egun ederra izan zen guztiontzat".

2. mailako Euskal Ligako taldeak denboraldiari agur esan dio txapelketa hori jokatu. Jokalariek dagokionez, gehienek

atseden izango dute. "Hurrengo hilabetean entrenamendu saioak amaituko ditugu, baina bada hondartzako boleibol txapelketa jokatzera animatuko den jokalaririk", azaldu du Acuriolak.

Entrenatzaileak ez du atsedenik izango, ordea; hurrengo denboraldia prestatzen hasiko da eta. "Ostadar Boleibol sailak urte hauetan egindako lanari jarraipena emateko gogor egin behar dugu lan", aipatu du.

Infantilen txanda

Eta hilaren 28an, Ostadarreko infantil A taldeak egingo du bidaia Getxora. Euskadiko txapelketa lehiatuko du eta Getxo Etorki izango du aurkari final laurdenetan.



Azken jardunaldian lasterketa politik izan ziren. DABID ARGINDAR

Lehia ederrak izan dira udaberriko azken jardunaldian

Ricardo Sousak bi garaipen erdietsi ditu azken jardunaldian. Udako denboraldia ekainaren 6an hasiko da

Txintxarri

Donostiako Hipodromoak udaberriko denboraldiari agur esan zion hilaren 19an. Azken jardunaldi horretan ere Aterpea Merkatarik elkarteak babestutako lasterketak jokatu ziren.

Jardunaldiari hasiera emateko Arkupe taberna saria jokatu zen. Ricardo Sousa-*Canarion* eta Denisa Sikorova-*Something* favoritoek ez zuten hutsik egin eta borroka ederra izan zen; *Canarion* izan zen garaile.

Arima Gastrotaberna Sarian, Jaime Gelabertek *One More Night*-ekin barruko errailetik joatea erabaki eta garaipena erdietsi zuen.

Hirugarren lasterketan, Ventanas Alcar sarian, nagusi izan ziren Denisa Sikorova eta *Anasita*.

Jarraian, Bideo Lagunak sarian, bihurtunera arte, Alexia Lucas-*Shangri La* eta Jaime Geklabert-*Upsilon* bikoek lehia

handia izan zuten. Baina lehenak zuzengunean aurre hartu eta helmugara bakarrik iritsi ziren.

Azken lasterketan, Aldatza Hertz Klinika sarian, Ricardo Sousak eguneko bigarren garaipena eskuratu zuen, oraingoan *Grazalema* gidatuta. Armando Olivasek eta *Hebe*-k festa hondatu nahi izan bazioten ere, Sousak ongi kontrolatu zuen aurkaria.

Denboraldiko laburpen modura, Guillermo Arizkorreta prestatzaileak eraman ditu sari gehien sasoi honetako lehiak. Jockeyen artean, garaipenak banatuagoak egon dira baina Václav Janacek hockey txekiarra izan da lasterketa gehien irabazi dituen, sei sari.

Orain Udako denboraldiaren eta Urrezko Koparen zain gertzen dira zaldi lasterketen zaleak. Ez dute asko itxaron behariko ekainaren 6an izango baita uda garaiko lehen lasterketa.

Taula Xake Klubeko taldeek maila manteduko dute

Taula A taldeak lehen mailarako igoera izan du jokoan azken fasean; ez da posible izan

Txintxarri

Taula Xake Klubeko taldeak Ligako azken jardunaldira iritsi dira. Taula A taldeak bigarren mailako igoera zuen jokoan. Hilaren 20an Blas de Lezoko lokalean jokatu

partidan Txaturanga gaintitu zuen; Miguel M. Baroja, Juan Cruz Figueras eta Victor Alvaro kideak euren neurketetan garaile izan ziren eta Juan Ignacio Echeverriak taulak egin zituen.

Hirugarren mailan ari den Taula B taldeak ere emaitza bera eskuratu zuen Zumaian. KBI Zumaia C izan zuten aurrez aurre herritarrek. Alejandro Sanchez, Mikel Manterola eta Diego Alonsok euren aurkariak gaintu zituzten eta Juan Luis Varela berdinketa eskuratu zuen.

Era berean, Erlantz Sanchez herritarra bigarren mailako igoera fasean ari da lehiak Gros K taldean. Azken jardunaldian, Zaletuak aurka ezin izan zuten



Taula A taldeko neurketako irudia. TXINTXARRI

bere lehia irabazi eta 3,5-0,5 galdu zuen Donostiako taldeak.

Emaitza horiek kontuan izanik, Taula Xake Klubeko bi taldeek maila mantenduko dute hurrengo denboraldian, baita Erlantz Sanchez kide den Gros K taldeak ere.

Nabarmentzekoa da Taula Ak hirugarren amaitu duela liga. Maila horretan lehen urtea izanik, igoera jokatzeko erronka handia izan da taldearentzat, baina herriko ederki moldatu da lehen postuetatik lehiak.

Azken unean egin dio ihes neurketak Ostadarri

Ostadar SKTko III. mailako taldeak neurketa borrokatua jokatu du Internacionalen aurka. Jaurtiketa pertsonal batek donostiarrei eman die garaipena. Talde urdin-beltza A-2 multzoko lehen postua eskuratzeko borrokan ari da; egun, hirugarren da

Txintxarri

Ostadar Saskibaloia ataleko taldeak denboraldiko azken jardunaldietan sartu dira. III. mailako taldeak A-2 multzoko burua eskuratzeko neurketa garrantzitsuak ditu hurrengo asteetan. Hilaren 20an, hirugarren zegoen CD Internacional izan zuen aurrez aurre eta hurrengo jardunaldian, sailkapen buru den Sasi Axularren aurka neurtuko ditu indarrak Beñat Eleicegui eta Gaizka Urreiztiren taldeak.

Maialen Chourraut kiroldegian jokatu zuen lehen partida talde urdin-beltzak. Lehia borrokatua izan zen eta azken minutuan erabaki zen pertsonaleko marran, 59-60.

Neurketako lehen zatia berdindua izan zen. Bi taldeak erasoan zein defentsan ongi moldatu ziren eta saskiratzeak txandakatzen joan ziren. Era horretara, 28-29 iritsi ziren atsendaldira.

Hirugarren laurdeneko azken minutuetan irauli zuen joera etxeko taldeak. Saskiratze eta hiru jaurtiketa pertsonali esker, aurre hartu eta alde txikia irekitzea lortu zuen, 53-49.

Azkeneko hamar minutuetan, bi taldeak garaipena eskuratzeko gogor ekin zioten eta defentsan lan ederra egin zuten. Ta-



Ostadar III. mailako jokalariek, eraso antolatzen. TXINTXARRI

malez Ostadarrek ezin izan zion errentari eutsi eta Donostiako taldeak berriro hartu zuen aurre. Azken minutua zirraragarria izan zen. Talde urdin-beltzak berdinketa (59-59) eskuratu eta Internacionalek eraso jo zuen. Epaileak etxekoen aurkako falta seinalatu eta jaurtiketa pertsonalari esker, donostiarrentzako izan ziren garaipeneko puntuak.

Azken lehiak

Emaitza horrek sailkapeneko hirugarren postura eraman du Ostadar (15 p.) eta Eibarrekin

puntutan berdindua dago. Multzoko lehen bi postuetan ere berdinketa bat dago, Sasi Axular eta Internacional taldeek 16 puntu dituzte.

Hilaren 27an, talde urdin-beltzak aukera berria du buruko lehiari egoteko. Internacionalek atsedena du eta Sasi Axular izango du aurkari Ostadarrek. Garaipena eskuratzeko asteen zehar gogor egingo du lan Beñat Eleicegui eta Gaizka Urreiztiren taldeak. Izan ere, neurketa borrokatua izango dela aurreikusen baitute talde urdin-beltzeko prestatzaileek.

Ostadar Ipar Martxako taldeak, flyschaz gozatzeko irteera

Apirileko ibilaldian Elorriaga-Deba bidea egin dute kideek. Hastapen ikastaro bat ere antolatu du taldeak

Txintxarri

Ostadar Ipar Martxa sailak ez du atsedetik. Asteko entrenamendu saio zein hilabeteroko irteerek ez dute huts egiten eta maiatzaren hastapen ikastaroa iragarri du taldeak.

Hilaren 21ean, apirileko irteera egin zuten kirol elkarte kideek.

Eguraldi paregabea lagun, Zumaia eta Deba artean ibili ziren ipar martxa taldeko kideak, zehazki Elorriagatik Debara egin zuten bidea eta flyschaz zein kostaldeko ikuspegiak gozatu zuten.

Hastapen ikastaroa

Bestalde, maiatzaren 11n, ipar martxako hastapen ikastaroa antolatu du Ostadarreko sailak.

Saioa 10:00etatik 13:00etara egingo da eta taldeak jakinarazi duenez, beharrez gero, maki-



Ibilbideko irudia. OSTADAR IPAR MARTXA

lak utziko dizkiete parte hartzaileei.

Ikastaroak 20 euro balio ditu. Izen ematea ostadar@ostadarskt.eus helbide elektronikoa, 943-360433 telefono zenbakian edo kirol elkartearen bulegoan 17:00etatik 19:00etara egingo da.

Telleriarrak 'Harro Herri' programako finalerako sailkatu dira

Hilaren 15ean, *Harro Herri* programaren bigarren denboraldia hasi zen, ETB 1en. Astelehenero bi harri jasotzaile taldek proba ezberdinak gainditu beharko dituzte eta saio bakoitzeko garailea maiatzaren 13ko finalean izango da.

Lehen bi saioetan, Luis Mari Telleria herritarrak zuzentzen dituen Ibiur eta Albizuri taldeak lehiatu dira eta batean kale bestean

bale egin du herritarrak. Ibiurrek ezin izan da finalerako sailkatu; Albizuri, aldiz, bigarrenez izango da lehia handian.

Albizuriko kide da bere seme Beñat Telleria ere eta hilaren 22ko programan, taldeak iazko finaleko arantza kendu ahal izan zuen txapeladun izan zen Etxauri taldea garaituz. Albizuriko kideek lan ederra egin zuten harri landuekin eta azken proban, Beñat Telleriak eta Gari Garmendiak harri baldarrarekin eman zion sailkapena taldeari.

Texas Lasartearrak udako kanpusa antolatu du

Hurrengo denboraldirako aurretiko izen ematea ere martxan jarri du futbol taldeak

Txintxarri

Texas Lasartearra CF udarako ekintzak zein hurrengo denboraldia prestatzen hasi da.

Batetik udako kanpusa antolatu du 2012 eta 2015

urte artean jaiotetako gaztetxoentzat. Ekainaren 13tik 25era, 17:00etatik 18:30etara izango dira saioak. Izen ematea kalean jarriko dituzten karteletako QRren zein futbol taldearen sare

sozialetan argitaratu duten loturaren bidez egin daiteke. Plaza mugatuak direla jakitera eman du elkarteak. Informazio gehiago, 647 93 61 96 zenbakian.

Horrez gain, talde zuri-urdineko kide direnek eta hurrengo denboraldian euren taldeetako jokalariz izan nahi dutenek aurretiko inskripzioa egin dezakete kirol elkartearen sare sozialetan eskuragarri jarri duten formularioan.


Martin, 2030. urtera arte txuri-urdin

Jon Martin (2006) futbol jokalaria eta Real Sociedad taldea akordio batera iritsi dira; bere kontratua 29-30 denboraldiaren amaieraraino luzatu dute. Lasarte-Oriako atzelariak 17 urte ditu eta harrobiko bitxietako bat da. Martin infantil Txiki mailan batu zen talde txuri-urdineko harrobira. Jubenilen kategorian lehiatzeko adinean egonda ere, 2023ko udan Sansera igo zen eta Euskal Herriko Kopako zein denboraldiaurreko hainbat partida Realarekin lehiatu zituen. Horrez gain, urtean zehar, lehen taldeko deialdian egon da hainbat neurketetan.




Martin, jokoa. REAL SOCIEDAD DE FUTBOL

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Maialen
Zorionak Maialen zure urtebetetzean!!! Espero dugu ondo ospatzea denok elkarrekin. Maite zaitugu, bihotzez. Aiton-amonak eta familiaren partetik.



Begoña
Zorionak etxeko lehendakariari!! Ospakizun festa bikaina egingo dugu; zure irrifar distiratsua ikusteko gogotxu gaude, Begotxu! Mila muxu etxekoan partez!!

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri, jaioberri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak

Internet

· txintxarri.eus/
zorionagurra.
· Erabiltzailearekin sartu/
Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.
· Zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

· Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

OHARRAK

San Juan sokadantza

San Juan bezperako (ekainak 23, igandea) Sokadantza prestatzeko entsegu irekiak egingo ditu Erketz EDTk. Saioak maiatzaren 9an hasiko dira eta ostegunero elkartuko dira Landaberri ikastolako Garaikoetxea eraikinean, 20:00etan. Parte hartu nahi duen edonor bertara daiteke entseatzera.

Prestakuntza saioa

Udaleko Gizarte Zerbitzuen sailak prestakuntza saio bat aurrera eramango du hilaren 29an, 12:00etan, Mirentxuko areto nagusian. Sanpedroak hurbiltzen ari direla-eta, indarkeria matxistaren protokoloa landu nahi du herriko ostalariekin. "Ostalaritza establezimenduak funtsezkoak dira gure jaietan, eta, emakumeak seguru senti daitezen, plazer eta dibertimendu lekuak izatea nahi dugu. Jakitun gara berdintasunarekin duzun konpromisoa zabala dela eta horregatik gonbidatu nahi zaituztegu prestakuntza saioan parte hartzera", adierazi dute Gizarte Zerbitzuetako langileek.



Jaio da!

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali hauraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA



ALOKATU

Apartamentu ederra alokatzen dugu Torredemarran (Tarragona), asteka, uztailean eta abuztuan. Etxe indianoa eta oso argitsua. Beheko solairuak lorategia du, eta hondartzatik 500 metrora dago. Etxebizitzak amerikar erako egongela, sukaldia, bainugela eta senar-emazteentzako logela ditu. Guztira 50m2 lorategiarekin, irteera independentearekin eta aparkaleku propioarekin. Prezioa 975 euro sei gau. Informazio gehiagorako 608319110

608043713 telefonoak. "Ongi Etorri".

SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

GARAJEA

ALOKATU

Hipodromo etorbidean garaje itxia alokatzen da, berria. Prezioa negoziagarri. Harremanetarako zenbakia: 616 81 68 14.

Erdigunean garaje marra bat alokatzen dut abendutik aurrera. Arratsalde deitu hona: 650 63 65 88.

LANA

ESKARIA

46 urteko emakumea garbiketa lanak egiteko ekaintzen da. Esperientzia du, baita informarek ere. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Emakumea ekaintzen da asteburuetan lan egiteko. Esperien-

tzia eta informarekin. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Emakume euskalduna etxeko lanak edo pertsona edadetei laguntzen lan egiteko prest. Esperientzia du. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

BESTELAKOAK

SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia Jarri nahi baduzu jar zaituz gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 26	DE ORUE
LARUNBATA, 27	ACHA-ORBEA
IGANDEA, 28	ACHA-ORBEA
ASTELEHENA, 29	DE MIGUEL
ASTEARTEA, 30	GIL
ASTEAZKENA, 01	LASA
OSTEGUNA, 02	URBISTONDO

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Florida Farmazia: Mañe I Flaquer plaza 6, Hernani. 943-57 64 77

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldúa eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:

Nikola Iraola, Xuban Urdallete, Egoitz Epelde, Nora Navarro, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 26

LASARTE-ORIA Dokumentala

Okendo Zinema Taldeak aurrera eramango duen Euskal Dokumentalen Zikloaren barruan, Ainhoa Andraga Zuri Goikoetxearen *Cabeza y corazon* proiektatuko dute. Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 20:00etan.

LASARTE-ORIA Jaia

Virgen de Guadalupe Extremadura Etxeko kideek jakinarazi dute garagardo dastaketa bat aurrera eramango dutela; bosna pintxo eta edari dastatuko dituzte izena ematen dutenek.

Extremadura Etxea, 20:00etan.

LASARTE-ORIA Mobilizazioa

Lasarte-Oriako Sarek mobilizazioa egingo du euskal presoen eskubideen alde. Elizatze plazatik abiatuta, Okendora arte joango dira.

Elizatze plazatik, 20:00etan.

LARUNBATA 27

LASARTE-ORIA Emanaldia

Lasarte-Oriako Alboka abesbatzak antolatuta, Italiako San Salvatore koroak emanaldia eskainiko du Brigitarren komentuan. Sarrera, doakoa.

Brigitarren komentua, 19:30ean.

LASARTE-ORIA Dokumentala

Okendo Zinema Taldeak aurrera eramango duen Euskal Dokumentalen Zikloaren laugarren proiektzioa izango da; Josu Martinezen *Mirande* proiektatuko dute. Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 20:00etan.

IGANDEA 28

LASARTE-ORIA Zinema

Kung fu panda 4 haurrentzako filma proiektatuko dute pantaila handian, eta Po panda hartzairen istorien berri izango dute gaztetxoek. Sarrerek 4 euro balio dute.

Kultur etxea, 17:00etan.



LASARTE-ORIA Jaia

Bizipoza elkarteak Bizipoza jaia antolatu du hilaren 26rako; egitarau oparoa iragarri dute 15:15etik aurrera. Okendo plazan aurrera eramango dute, baina eguraldi txarra egiten badu, enparantza horretako egitasmoak Oriarte Landaberi instituturara eta Antonio Mercero aretora lekualdatuko dituzte. Porrotx pailazoak aurkeztutako ikastetxeetako ikasleen koreografiekin lehertuko da jaia (15:15ean), eta Bizipoza osatzen duten elkarten txanda izango da gero (18:00etan). Bizipoza Eskola egitasmoa aurkeztuko dute gero (18:30ean). Hurrengo egunean Hemanin egingo du jaialdia. Informazio osoa, www.txintxarri.eus-en.

Okendo plaza, 15:15etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Zinema

La familia Beneton helduentzako filma proiektatuko dute. Haurregandik ihesi dabilen gizon karramarroaren istorioaren lekuko izango dira ikus-entzuleak. Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 19:30ean.

ASTELEHENA 29

LASARTE-ORIA Dantza

Dantzaren Nazioarteko Eguna aitzaki, diziplina artistiko horri aitortza egiteko makina bat ekimen aurrera eramango dituzte. Lasarte-Orian ere egingo dute emanaldi bat, Kukuka eskolak koordinatutakoa. Eragile horrek ez ezik beste zenbaitek ere parte hartuko dute: Amaia Gonzalez Caballero akademia, Erketz Dantza Taldea, Semblante Andaluz eta Saharako Taldea.

Okendo plaza, 19:00etan.

ASTEARTEA 30

LASARTE-ORIA Literatura

Krutwig. Bere mendeurrenean berrirakurtzen liburuaren aurkezpena aurrera eramango

du Krutwigen Lagunen Taldeak; Baleren Bakaikoak eta Oskar Arantzablek gidatuko dute saioa.

Mercero aretoa, 19:00etan.

MAIATZAK 4

LASARTE-ORIA Jaia

Udaberri Festa antolatu du Iñigo de Loiola bizilagun elkarteak. Egun osoko egitaraua iragarri du, eta askotariko adin eta gustuei zuzendutako jarduerak aurrera eramango dituzte. Iñigo de Loiola izango da ekimena aurrera eramango duten leku nagusia, baina, horrez gain, Juan de Garay, Pintore, Pablo Mutiozabal, Geltoki, Zapategi eta Hipodromo etorbidea ere hartuko ditu ospakizunak. Hau da antolatzaileek aurkeztu duten egitaraua:

10:00etatik 11:30era: Diana.

Trikitixa Ankoker auzoan zehar.

11:00etatik aurrera: Pintxo potea, izakinak amaitsu arte.

11:00etatik 13:00etara:

Haurrentzako jolasak babesleen sariekin.

11:30etik 13:00etara: Erraldoiak eta buruhandiak, Lozet elkartearen eskutik.

11:30etik 14:00etara: Kilkerband txaranga kaleetan zehar.

12:00etan: Bizkotxo lehiaketa. Ordu horretarako

ZINEMA



LABURPENA

'Kung Fu Panda 4'

Zuzendaria: Mike Mitchell eta Stephanie Stine. **Ekoizleak:** DreamWorks Animation, DreamWorks SKG, Universal Pictures. **Distribuidora:** Universal Pictures. **Gidoia:** Jonathan Albel eta Glenn Berger. **Herrialdea:** Ameriketako Estatu Batuak (2024). **Iraupena:** 94 minutu. **Generoa:** Komedia, animazioa, akzioa. **Aktoreak:** Jack Black, Awkwafina, Viola Davis, Dustin Hoffman, James Hong, Bryan Cranston, Ian McShane, Ke Huy Quan, Ronny Chieng, eta abar.

Bakearen Haraneko maisua

Po, Bakearen Haraneko Maisu Espiritual bihurtuko den hartza bat da, bera ordezkatzeko duen Dragoi gerlariaren bila ari da, La Camaleona izeneko etsai

berri baten aurka borrokan ari den bitartean. Marrazki biziduneko proiektazioaz goatu ahal izango dute herriko haur eta gazteak.

lehiaketan parte hartu nahi duten bizkotxoak aurkeztu beharko dituzte parte hartzaileek Iñigo de Loiolako plazan.

Sari banaketa 13:00etan egingo dute.

14:30ean: Paella jan herrikoia. Txartelak Iñaki tabernan eros ditzakete interesdunek, 10 euroren truke.

16:30ean: Bingoa.

18:00etan: Dantzak, salsa, merenge, eta abar.

16:30etik aurrera: Koktel

barra, Yon Pavon Cocktail Events-en eskutik.

19:00etatik aurrera: Dj

Karpinekin, festa amaio arte.

Iñigo de Loiola auzoa, 10:00etatik aurrera.

MAIATZAK 5

LASARTE-ORIA Erromeria

Santikurutz Egunaren biharamunean ospatu ohi du Ttakun Kultur Elkarteak Azkorte erromeria; antolatzaileek jakinarazi dute trikitixa jotzaileek girotuko dutela erromeria; hau da iragarri duten egitaraua:

10:00etan: tabernaren irekiera.

Indarrak berreskuratzeko jatekoa eta edatekoaz gozatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek.

11:00etan: Meza, Azkorte ermitan. Alboka abesbatzak abestuko du.

12:00etatik aurrera: herri kirolak

eta trikitilariak.

Azkorte, 10etatik aurrera.

ttakun
Kultur Elkartea

TTAKUN
KULTUR ELKARTEA

bazkide egiteko:



GAZTE BAZKIDETZA

18-30 urte bitartekoentzat



Hilabetero zozketetan parte hartuko duzu!
kultur ekitaldietarako sarrerak, bazkari edo afariak,
produktuak, herriko komertzioetan erabiltzeko bonuak, eta abar



aukeran:



Apirila, maiatza eta ekaina bitartean
bazkide egiten bazara EHZ jaialdirako
BI BONUREN zozketan sartuko zara!!

Informazioa eta bazkidetzak: ttakun@ttakun.eus • Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria • 943-37 14 48

ELECTRICIDAD
ARREGUI

Gaur egungo etxetresna elektrikoekin
energia aurreztuko duzu!

600 85 75 86

www.electricidadarregui.com

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA

Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21



AURREZTU
1.000 € URTEAN
ENERGIAN

GAINERA,
30 LITRO UR
AURREZTU

Combi: -236,56 €
Hozkailua: -122,21 €
Izozkailua: -219,75€
Arropa-garbigailua: -80,72 €
Lehorgailua: -176,02 €
Ontzi-garbigailua: -84,09 €
Labea: -71,75 €



Urtean 1.000 € aurreztu ditzakezu
etxetresna elektriko zaharrak
eraginkorregatik aldatzen badituzu